

# GEROA

## GIZONAREN SORBURURA

Idazti barri bat agertu jaku, izen onegaz: ' «Eriotza-Ostean». Morton Kelsey'k idatzia da. Idazle onek kon-dairaren lenengo egunetara daroa irakurlea, baiña ibiltaldia egitea ez da igarotakoak jakiteko, bestera baiño; Etorkezuna gure betiko ardurea data irakasteko.

Morton Kelsey, liburu-idazle au, olerkari, psikologo eta episkopalian-darren abadea be ba-dogu.

Orain, urtero, eriotzea ta azken-or-dua gai dirala, Notre Dame Ikaste-txean ikastaroa zuzentzen dau. Bear dan lez, bere burua irakurledun pas-toralgintza jakintzura ta krisiñau-ekintzen zeregiñetara lotuta dauko.

\* \* \*

## GAI SAKONAK

Sinismenaren azterketak eta gogo-ramenak argitzeko ta barrizatzeko bidea dogu ba liburu au. Izan be, eriotzeak eta geroak oraingo bizitza au zelan erabili ondo jakiteko zer-ikusi aundia dauka.

Kelsey'gaz azterpen au egiñez, abadeai be gauza batzuk bururatzen jakuz: Eriotzearen gura-eza, zerua al-perrekoa ta ardurabakoa ete dan, in-pernuaren arazo bizia, illezkortasuna...

Marxisten salakuntza be or ager-tzen jaku barriro: Bizitza gogorra eroatera sinistedunak gogotu daite-zan, geroko betiko atsegiña eskintzen dogula, orrelan emengo zuzentasuna ta bizitza obearen billaketa aide bate-ra itzita.

\* \* \*

## OARMENA OIÑARRI

Parmenides Grezia'ko filosofoaren eta aspaldiko atomo edo kizizaleen eritxiak be agertzen dira: Mundua, izadia, kosmos, betikoak diran atal-txu bardiñez osotua dala. Oiñarri orrek be eragin aundia dauka libu-ruan.

Munduan diran gauza artean ga-rrantzitsuena, oarpena (experiencia) c'ala diño, ortik agertzen dala *mun-d* uaren izatasuna-ta.

Eta zeru, inpernu ta gogoen oarpe-rik iñok ez daukon lez, obe ei da Ba-rrri Ona teologoaren ikuspegi berezi ba-rik agertzea.

\* \* \*

## GIZONEN SINISMENA

Ainbeste guzurrezko irakaste, ain-beste sinisbide oker agertu ondoren, Kelsey'k gure betaurrea illundu egi-ten dausku eta gero gure sinismena ezin geinkela baztertu eta bere egiak ez dirala aiztu bear diñosku.

Orretarako oarpenaren gaiñetik, gizaldi guztiak eta erri guztiak jaidko baten edo askoren sinistea izan dabe-lia diño Kelsey'k.

Gizonik geienak, azken arnasa emon dabenean, eriotz-ostean zerbait ba-dagola sinistu dabe.

\* \* \*

## BETIKOTASUN-EGARRIA

Gaur alegin aundiak egiten dira gi-zonal sinismen ori kentzeko; Olango sinisterik ez dabela bear, eriotzearen gogoramena gainduteko bakoitxak gogotsu izan bear dauala, umeak edo agureak bear daben makilla barik bi-ziko dirala ta olakoak esaten jakez.

Baiña or itaun bateri ez dautsoe erantzuten: Gizonaren Jainko ta betikotasun-billa ibilte ori nondik sor-tua ete dan. Ez ete da ori Egilleak be-rak ezarria? Gizonak betiko biziaren guraria daukela ezin leike ukatu.

Morton Kelsey'k, bera be kristi-ñaua da-ta, betiko bizitza gogoran-tzen dausku.

## BIZITZA BARRIA

Aldatu egingo garala diño, baiña gure izatean geratuz. uste izan eta iruditu geinken baiño askoz geiago, bizitza sakonagoz eta obeagoz biziz.

Jesukristo'k, bere neke ta samañez, kurutzean gure oben-ordaintzea egin eta zorionezko bizitza ori irabazi eus-kun.

Zuzentasunak berak be ori eska-tzen dau: Ontasuna saritu ta gaizta-keria zigortuko dan tokiren bat izan bear.

Garbitokia (bai Garbitokia) Dan-te'k bere Divina Comedia'n eta ango gizagurenetan gogoratzen dauan lez, Morton Kelsey'k gure gurariak bete-teko Jainkoak emondako sasoi ona gogoratu dau.

LETONA'k